

Liburuak

KRITIKA

Zangozikin. Koldo Izagirre.
Irudiak: Antton Olariaga.
Igela. 28 orrialde. 14 euro.



Haur eta gazte literatura

Xabier Etxaniz Erle

Bizitzaren gezurrak

ZANGOZIKIN dugu istorio honetako protagonista eta narratzailea. “Bazkalondoan, eguzkiak gogor jotzen duenean, kalean inor ez dagoela, plazara irteten naiz txangoan jolastera”. esaldiarekin hasten da kontakizuna, eta espazio horretan, plazan, bazkalostean jazotzen denaren berri emango digu Zangozikinek. Izan ere, badirudi inor ez dagoela bertan, “eguzkiak gogor jotzen duenean”, baina “ordu horretan, kaleak hutsik daudenean, etorkinak azaltzen dira plazara bazter urrunetara dei egin eta han utzi zituztenekin hitz egiteko” eta, hain zuzen, gertakizun horren inguruan dago eraikita liburua.

Zangozikinek etorkin batzuek kontatzen dutena azalduko digu, nola ematen dieten hangoei hemengoaren berri, nola azaltzen hemengo bizitza, giroa... Gurasoei esaten diete ez kezkatzeko, hemengo jendea atsegin dela, frak beltza jantzita ibiltzen direla, lagunak dituztela... baina testuak hori dioten bitartean irudiak bestelako errealitatea erakusten digu, benetako egoera. Eta hain zuzen, horixe dugu albumaren balio handienetako bat: bi kode ezberdin daudenez –idatzizkoa eta irudien bidezkoa– bien irakurketa osatua egin behar dugula eta horrela jakin, esaterako, Itsasok lagun berri bat egin duela eta berarekin ibiltzen dela paseoa dienean, amonaxoa dela lagun hori. Hau da, irakurleak badaki etorkin horiek ez dutela egia esaten, edo ez egia osoa, etorkinak beraien familiarrak lasaitzen saiatzen direla, hemengo errealitatea aldatzen dutela...

Gainera liburu amaierak, Zangozikinen berri ematen digunak, balio du ideia horiei beste berri bat gehitzeko irakurlearengan gogoeta eraginez.

Aitortu behar dut, esandakoak esan ondoren, *Zangozikin* liburu honen aurrean bi iritzi kontrajarri izan ditudala. Alde batetik poza eta harridura liburuagatik; idatzizkoaren erritmoak, argumentuak, irudien iradokizunak... horrelako sentimendua eragin didate. Ongi idatzitako istorioa da, hitz gutxitan gauza asko kontatzen eta iradokitzen dizkizun testua; indar handiko irudiak dituen kontakizuna; eta, aurretik aipatu bezala, hitzaren eta irudiaren arteko irakurketa eskatzen duen lana.

Horren ondoren, aldiz, kezka ere sortarazi dit liburu honek. Beste zenbaitetan ere aipatu izan dugun bezala ez da oso argi ikusten zein den irakurle inplizitua. Badirudi liburu hau haur txikientzat egina dela, baina irudien interpretazioa egiteko –Olariagak azaltzen dituen ilustrazio ezberdinen arteko konposaketa ongi ulertzeko– eta testuaren irakurketa osoa egiteko heldutasun maila bat behar da, eta agian horixe izan daiteke liburu honen zailtasuna. Ederra baina ematen duena baino helduagoentzat? ■

Ura: zibilizazioen edari, liskarren iturri

Fernando Bustillok eta Ekain Martinez Lizarduikoak idatzi dute *Ura, gizadiaren ondarea* liburua. Gaiak argitaletxeak publikatu duen liburu honen helburua, zera da: ulertaraztea, ura ezinbesteko elementua dela gizadiaren garapena ulertzeko. Horretarako uraren inguruan eraikitako zibilizazioen historia errebasatu dute egileek.

Atzera botatako begirada horretan garrantzi berezia eman diote Euskal Herriari, urak toponimian, errituetan, burdinolen sorreran eta abarretan betetako lana azpimarratuz. Baina egun, ura gatazka iturri ere bada, munduko baliabide hidrikoak ondo banatuta ez daudelako. Zer egin horren aurrean? Nola eragingo dio arazoak biharko Euskal Herriari? ■




Ura, gizadiaren ondarea.
Fernando Bustillo
Ekain Mtz.
Lizarduikoa.
Gaiak.
142 orr. 18 euro.

Peillenek bizitzatik hartu metaforak

Txomin Peillenek 1981ean Bordelen irakurri zuen semantika tesiaren ondoko emaitza da *Biziaren hiztegia* liburu hau. Hitzaurrean egileak dienez, jendeak euskararen aberasteko biologiaren hiztegia erabili izan du urte askoan: bizidunak izendatzeko hitzak metafora bidez bestelako erabilere-tarako ere usatzea. Liburu honen asmoa hiztegi hori berreraikitzea da, hain zuzen ere. Lekukotasun zaharrenetatik abiatuta, sinesteek hizkeran izan duten eragina aztertzea, eta erakustea biziaren hiztegiak geografiari, matematikari, psikologiari,

zuzenbideari eta bestelako jakituriei egindako ekarpenak. ■



Biziaren hiztegia.
Txomin Peillen.
Euskaltzaindia.
283 orrialde. 12 euro.